

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

55/2021 Mozioa, ekainaren 16koa, tokiko entitateei argindarra eta hidrokarburoak garraiatzeko hainbat instalaziok tokiko herri-jabaria eskusibotasunez erabiltzeagatiko eta baliatzeagatiko tasa berria ezartzeko aholakularitzari buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2021eko ekainaren 16an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

55/2021 Mozioa, ekainaren 16koa, tokiko entitateei argindarra eta hidrokarburoak garraiatzeko hainbat instalaziok tokiko herri-jabaria eskusibotasunez erabiltzeagatiko eta baliatzeagatiko tasa berria ezartzeko aholakularitzari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote jarrai dezala lurraldeko tokiko entitateei laguntza eta lankidetzatza juridikoa, ekonomikoa eta teknikoa ematen, bereziki ekonomia- eta kudeaketa-gaitasun txikiak dutenei.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote argindarra eta hidrokarburoak garraiatzeko hainbat instalaziok tokiko herri-jabaria eskusibotasunez erabiltzeagatiko eta baliatzeagatiko tasa berri bat ezartzeko aholakularitza eman dadila segurtasun juridiko handiena bermatuta.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 16a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA